



Ramiro Pinilla

5.GETXOKO ELEBERRI LABURREN LEHIAKETA

+ INFO: www.getxo.eus/ramiropinilla



Getxoko Kultur Etxeak deialdia egiten du 'Ramiro Pinilla' Eleberrri Laburren Lehiaketaren 5. ediziorako; honako hauek izango dira oinarriak:

Lanak

Lanak **originalak eta argitaragabeak** izan behar dute (osorik edo partzialki), ezin izango dira aurkeztu aurreko lehiaketetan saririk jasotakoak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko **bi hizkuntza ofizialetako** edozeinetan idatzita egon daitezke (**euskara eta gaztelania**). Lehiaketa honetara aurkeztu eta gero beste edozein lehiaketatan sariren bat jasoko balu, Kultur Etxeari jakinarazi beharko zaio, hautagaitza erretira dezan. Eleberrriaren autoreak bermatu beharko du aurkeztutako lanaren egiletza eta originaltasuna, baita ez dutela hura argitaratzeko eskubiderik hirugarrenekin konpremetituta ere.

Hautagaiak

Sari horren hautagai izan ahalko dira **egoitza Espainian dutenak**, edozein dela ere haien nazionalitatea.

Dotazioa

Lehiaketako sariak honako hau hartuko du barne: **6.000 euroko saria hizkuntza bakoitzeko lan bakarrarentzat**; gainera, obra publikatuz gero, Kultur Etxeak zenbait ale erosiko ditu, gehienez ere **1.000 euroko diru-kopuruan**; **oroigarri bat** eta Alkatetzak emandako **egiaztagiria**.

Luzera

Luzera **80 eta 120 orrialde** artekoa izango da, **DIN A4** tamainakoak, **Arial** letra tipoa, **12** tamainakoa, **lerroarte bikoitzean**, **3 cm-ko aldeetako ertzak eta 2,5 cm-koak goikoa eta behekoa**, orriaren bi aldeetan inprimatuta. Orrialdeak zenbakitu egingo dira, lanaren lehen orrialdetik hasita.

Kopia bakarra bidaliko da, **PDF formatuan**.

Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Lanak **eskura edo posta bidez** aurkeztu ahalko dira, Getxoko Kultur Etxeko Erregistro Orokorrean (helbidea:

Muxikebarri eraikina, Basagoiti etorbidea 77, Getxo, 48991), Getxoko Udaleko Herritarren Arreta Bulegoan zein Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusten duen beste edozein lekutan.

Aipatutako legeak aurreikusten duen bezala, **Getxoko Udaleko Administrazio Elektronikoa**ren **Bulegoaren** (AEB) bidez ere aurkeztu ahal izango dira (www.getxo.eus), horretarako www.getxo.eus/ramiropinilla web orrian zehazten diren argibideei jarraituz.

Hautagaitzak aurkezteko epea 2022ko otsailaren **18an amaituko da**.

Informazio osoa Udaleko webgunean egongo da eskuragarri (www.getxo.eus/ramiropinilla), eta oinarriak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Erabakia

Epaimahaia osatuko dute letren munduko hiru adituk, eta **abuztuaren amaieran** bilduko dira. Hura nork osatzen duten publiko egingo da erabakia jakinarazten den unean; hori **irailaren 13aren inguruan** izango da (Ramiro Pinillaren urteurrena). Erabakia apelaezina izango da, eta, hala erabakitzen badu, bi kategorietako sarietako edozein eman gabe utz dezake. Haien deliberamenduak sekretuak izango dira, eta epaimahaikideek ez dute komunikaziorik izango sariaren hautagaiekin.

Itzulera

Saritu gabeko originalak eta baita plikak ere Kultur Etxean jaso ahal izango dira 2022ko urriaren 31 baino lehen.

Epaimahaiak ebatzi ahal izango ditu oinarri hauetan ezarri gabeko gaiak ere. Deialdi honetara aurkeztean, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira. Lehiaketatik kanpo geratuko dira oinarri hauetan ezarritakoari jarraitzen ez dioten lanak.

Deialdi honen oinarri osoak BAOen eta Getxoko Udalaren web orrian argitaratuko dira.